

Langile publikooi iruzur gehiagorik ez! Negoziazio kolektiboa, gure eskubidea!

Gaur ostirala, hilak 14, Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoko Mahai Orokorrerako deialdi berria egin du. Berriro ere Eusko Jaurlaritzak gai zerrenda itxi eta mugatu baten inguruan aritzeko deitu gaitu sindikatuak; itxia, administrazioak berak definitzen duelako zeintzuk diren negoziagai dauden gaiak eta zeintzuk ez; eta mugatua, gai horietan zertaz eztabaideatu daitekeenaren mugak berak ere aldebakarrez ezartzen dituelako.

Hau izanda PNVk Jaurlaritza zuzentzen duenetik Sailak erakutsi duen jarrera langile publikoen eta zerbitzu publikoak negoziatzerakoan. Gogoratu behar dugu Zearreta Sailburu-ordeak Mahai hau azken hamarkadetan sektore publikoan eman diren murrizketarik handienei babes soziala emateko baino ez duela erabili, tartean 35 orduko lanaldiaren akordio historikoaren urraketa. Eta gaurko deialdia ildo berean kokatu du.

Gai zerrendan planteatutako puntuen artean 2015eko lanaldia aurkitu dugu, baina jakin badakigu bilera bera neurri hau (eta antzekoak) luzatzeko baino ez duela erabiliko. Horregatik aurreko ikasturtean Mahai Orokorean ordezkaritza dugun lau sindikatuok bertatik altxatzea erabaki genuen. Gaur gaurkoz, egoerak ez du hobera egin, murrizketa berriak aplikatu diren heinean, okerrera baizik, eta bileran ez du lanaldiaren arazoa konpontzea planteatuko. Horregatik ezinbestekoa deritzogu horrelako neurrien garapenean inongo babes sozialik ez ematea Urkulluren Gobernuari. Zentzu horretan LABek gaurkoan ez parte hartea erabaki du.

Bestetik, gai zerrendan 2012ko pagaren zati baten berreskurapena ere proposatzen dute, alegia, egun Estatuko Aurrekontuen Legeak baimentzen duen berbera; LABek, paga osoa berreskuratu behar dugula aldarrikatzen du, Estatuko Legediak ezartzen duena behin eta berriz aplikatzeak lan baldintza eta zerbitzu publikoen murrizketa besterik ez baitakar, eta gainera, gure zerbitzu publikoak zein gure lan baldintzak geuk erabakitzeko eskubidea baitugu. Jaurlartitza zuzentzen ari den Gobernu honek Estatuak erabakitzeten dituen murrizketak inposatzea du xede nagusia.

Saila errealtatetik abstrakzio ariketa bat egiten ari dela salatu nahi dugu. Izan ere, hilabeteak daramatza langileen ordezkaritzaren gehiengoa ez duen mahai baterako deialdiak egiten egoera normalizatu batean ariko bagina bezala. Ezin dugu oharkabeen pasatzen utzi azken hilabete luzeotako neurri guztiak langileen babesik gabe eta langileen kontra hartzen ari dela. Zertarako deitzen du orduan Funtzio Publikoko Mahai Orokorra? Zer antzezlan irudikatu nahi du horrelako deialdiekin? Jaurlaritza honek negoziazio kolektiborako eskubide urratzen ari da behin eta berriz, negoziazio itxurak eginez eta langileoi iruzur egiten saiatuz.

Honen aurrean gogoratu nahi dugu LAB sindikatuak hurrengo aste eta hilabeteetan Administrazioa goitik behera aldatzeko PNVk onartu nahi dituen lege egitasmoak (Administrazioarena, Enpleguarena, Udalena, Segurtasunarena...) baldintzatzeko mobilizatzen jarraituko duela, hurrengo egunetan aurkeztuko dugun dinamikaren bitartez.

¡No más fraudes a las y los trabajadores!

Negoziazio kolektiboa, gure eskubidea!

Hoy, 14 de noviembre, se ha reunido la Mesa General de negociación del Gobierno Vasco. Una vez más nos hemos encontrado con un orden del día cerrado y limitado; cerrado, porque es la Administración la que decide sobre qué se "negocia" y sobre qué no; y limitado, porque incluso en esos puntos también establece una serie de limitaciones sobre lo que se puede o no discutir.

Esta es la única actitud que hemos conocido por parte del Gobierno Vasco desde que lo dirige el PNV. Conviene recordar que el Viceconsejero Zearreta ha utilizado esta mesa para tratar de dar cobertura social a los mayores recortes conocidos en esta última década, entre ellos el decreto de ampliación de la jornada semanal de las 35 horas que hasta la fecha había sido un acuerdo histórico. La reunión de hoy se encuadra en esta misma línea.

Precisamente esta cuestión, la de la jornada del 2015 se encuentra entre los temas del orden del día, pero estamos convencidos de que la plantea para reafirmarse en el decreto de ampliación de la jornada. Esta fue la razón por la que el año anterior los cuatro sindicatos con representación en esta mesa nos levantamos de la misma. La situación actual no ha mejorado, es más, se han aplicado más recortes y ha ido empeorando. Por eso entendemos que no debemos darle ninguna cobertura al Gobierno de Urkullu en el desarrollo de estos recortes, y es por eso por lo que LAB no ha acudido a la reunión.

Otro de los temas que incorpora el ejecutivo al orden del día es la recuperación de una parte de la paga del 2012, la misma parte que ya permite recuperar el Estado vía Ley de Presupuestos; sobre este tema LAB se ha manifestado siempre de manera muy clara, exigimos que se recupere la paga entera, y lo exigimos porque imponer automáticamente todo lo que la legislación básica estatal establece nos lleva únicamente a destrucción no sólo de derechos laborales, sino también de servicios públicos, y porque es nuestro derecho decidir libremente sobre todo ello. Sin embargo el Gobierno Vasco no hace sino imponer aquí lo que decide el Estado: recortes y destrucción de servicios públicos.

En cuanto al Departamento decir que, convocando Mesa de Negociación como si estuviéramos en una situación normalizada, está abstrayéndose de la realidad. No podemos olvidar todas las medidas impuestas contra los trabajadores y las trabajadoras, y contra su voluntad. Siendo esto así, ¿Para qué convoca la Mesa General?, ¿Qué pretende escenificar? Se trata de un intento desesperado de confundir a las y los trabajadores fingiendo voluntad de negociación, donde no hay más que imposición.

Ante esto LAB recuerda que durante las próximas semanas y meses convocará movilizaciones (que en breve daremos a conocer) para condicionar el signo de todos los anteproyectos de ley que se están debatiendo en este momento, y que marcarán el modelo de Administración y servicios públicos de la CAV..